

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure erakunde honek sortu duen zerbitzua hainbat pertsonentzat edo erakunde publiko zein pribatuendako dago bideratuta. Lehen aipatu dugun bezala gure proiektua errefuxiatuendako harrera plan bat egitean datza.

Pertsona partikularrek beraien ekarpenak egin dezakete harrera plan honi laguntzeko, esate baterako; jantziak, garraioak, alfabetatzearekin lotutako gauzak, aisialdirako proposamenak, familiei arreta, afizioei irtenbideak, kirol-gizarteratze aukerak...

Azken finean, edozeinek lagundu ahal duelako. Horregatik, edozein herritarren laguntza eskaintzen bazuen ere, prest egongo ginen bere ideiak entzuteko eta Tarhib erakundearen parte izateko. Horrela, gure harrera plan hau edozein herriko udaletxeari, elkartei, herritarrei, herritar taldeei eta erakundeek eskainiko diegu, denok batera harrera plan oso bat osatuz.

Baita ere, erakundeek zati handi bat hartzen dute gure erakundearen ere, esate baterako, behar handiko ekarpenak egin dezaketelako, adibidez; aterpea, laguntza edo aholkularitza legala, osasun zerbitzua, hezkuntza aukerak...